



## **LEHEN HEZKUNTZAKO 3. zikloa: IPUIN SARITUA**

### **FRUTEN MUNDUA. Miren Mailharin.**

Bazen behin herri txiki batean Aitor izeneko mutiko bat. Asko gustazen zitzaion ikertzea, gauza berriak aurkitzea edo sortzea...

Egun batean, zerbait berria sortzeko pentsatuz eta pentsatuz zegoela, ideia bat bururatu zitzaion: leiho magiko bat egitea. Lan handia egin ondoren, leihoa bukatu zuen eta hura zeharkatzean mundu berri bat ezagutu zuen: fruten mundua. Oso polita zen. Alde guztietatik laranja, banana, udare, marrubi, gerezi, kiwi eta mandarinak zeuden. Han geratu nahi zuen bizitzen, baina gauzak ez ziren hain errazak izan, frutek ez baitzuten bera gelditzea nahi eta Aitorri esan zioten:

—Zoaz! Joan etorri zaren lekutik! AAAAAA!!!! Jango gaitu!!!!

Aitor oso triste zegoen eta, asko pentsatu ondoren, bat-batean besoak moztea bururatu zitzaion eta hala egin zuen. Frutengana joan eta hauxe esan zuen:

—Ezin dizuet ezer egin, ez dut eskurik! Mesedez, utzi bizitzen zuekin!!!!

Udareak erantzun zion:

—Baina zapaldu ahal gaituzu!!!!

Orduan Aitorrek, pentsatuz eta pentsatuz, hankak moztea erabaki zuen. Frutei esan zien bukatzean:

—Orain ezin zaituztet jan, ezta zapaldu ere. Utzi zuekin bizitzen!!! Mesedez!!

Baina laranjak erantzun zuen:

—Ez, ez duzulako gure forma eta gaiztoa zarela pentsatuko dugu.

Orduan, asko pentsatu ondoren, gorputza moztu zuen. Burua bakarrik geratu zitzaion eta frutekin hitz egin zuen:

—Orain zuekin bizitzen gera naiteke?

Eta fruta guztiek batera erantzun zuten:

—Bai, bai, bai!! Fruta berri bat sortzea erabaki dugu eta sagarra deituko da, zu izango zara.

Azkenean, oso ongo bizi izan zen, nahiz eta gerri txiki hori pixka bat faltan bota. Hortik aurrera, sagarra daukagu, borobila, burua bezalakoa. Sagarraren txortena Aitorren txapelaren txortena izango ote den, auskalo!